

# "BAI TA EZ" ADITZ-AURÉAN

## AZKUE JAUNARI ERANTZUNA

---

1. Aditz-aurean baño «aditz-irabiatu-auren esatea zeatzago edo -litzake» diñost Euskaltzain -buruak. Ezetzik ez diñot; baña «irabiatu» ori, «conjugado» adierazteko, labatik arako opila da-ta, orixegaitik ez neban erabili. Itz ori erabili ez aren, neure lenengo txostenean auzira nenkaeren aditza, irabiatu edo notiñez mugatua zala argi asko egoan; augaitik, aditz-auretik lekora, gure «bai ta ez» erderazko «sí ta no» baño besterik izan daitekezan ala ez, aitatu be ez neban egin.

2. «Edo bakañik edo aditz-auretik dabiltz beti», esan neban; baña aditz-auretik doazan bakoitzean, aditzari ikutzen dautsela ta bien bitarñean beste itzik ezin sañtu daitela: au be iñoz eta iñon ez dot esan. Bien bitarñean beste itzen bat edo batzuk bein baño sañago sañzen dirala, eredu bañi bila ibili barik be, neuk neronek agerbidetzat aitatu nebazanak argiro darakuse; baña naiz ori egiten danean naiz aditz mugea darabilgunean, «bai ta ez» aditza joten ez aren, bere auretik doaz eta berari dagokioz.

3. Erderazko «sí ta no» aditz-aurizkiak izango diran egunean, gure «bai ta ez» be oñelako zerbait izango dira; baña bien bitarñean, ez». Au idatzi nebalata, Azkue jaunak abarots andia darabil; baña zetan ez dala. Euskerea, atzizkietan ez, baña aurizkietan erdereña baño be urñago da-ta, gure «bai ta ez» auriz-

kiak izatea érderazko «sí ta no» órrelako zerbaít izatea baizen eziña ta, beaí ba-da, eziñago zala neritxon; augaitik, érderan izan ezin daiteken gauza ori be lenago izango dala ta gure «bai ta ez» aditz-aufizki izango diran eguna urun dagoala adierazteko asmoz, idatzi neban ori; baña érderan ez dan gauzarik euskeran be ezin izan daitekela ta érderea, gaztelerea batez be, euskerearen *neurí* ta eredutzat artu beaí dogula, amesetan be ez yat iñoz neure burura etóri. Norberak nai dituan gayak auzira ekaí; yibitea eskuan artu ta yibitotsa ateratea egiñen éreza da: éreza baizen zuzena ba'litz, nire burkideak egin dauan ori ondo legoke. Ziñez, erderan ez diran gauza asko euskeran izan daitekez; órretan batera gagoz; baña euren buruen jabe diran eta bakoitza bere aldetik azke la jarein dabilizan itz oneik, naiz érderan naiz euskeran, aufizkiak dirala, ori erakutsi ta on egin beaí litzate.

4. «Euskalari geien-geienak-diño Azkue jaunak-aufizkitzat erabili dabez».—Ériak aditzari iratsi dautsazala-ta, idazle askok be órrelantxe idatzi dabez; au neuk autórtzen neban; baña aufizki etsi ebezalako ala ériaren oguzkerea idatzietara eroan ebelako izan ete-da ori? Aufizki diran ala ez jakiteko, buru-auste andirik ez ebela erabili dirudit. Añibaíok, esaterako, bere Esku-Liburuan: *nor tzara zu? egin tzaitez: alan tzalakoan: il tzan* eta beste berein órrein antzeko idatzi ébazan, ériak órrelantxe esaten dituala-ta beste barik.

Óraitik be, beste euskalari batzuk, eta bikañenak atan be, ériari onetan ez dautse jaíaitu. Mogel zaíak batzuetan bai, beste batzuetan ez. A. Bartolome'k «ez» aditzari bein be ez eutsan iratsi, nik dakidala beintzat. Axulaíek, aditzaren lenengo igidiñean ériak

egindako aldakuntzak aritu ebazan; baña «ez» ori maratxo baten bidez, sañi askotan aditzetik berezi ta aldendu be bai: *ez-takiana*, *ez-tuena* (42), *et-zakitzan* (43), *ez-tirela* (50). Mendiburu'k «z» bi alkañen jañai doazanean izan ezik, beste innoz be aditzari *ez* eutsan iratsi. «Ba, bai ta ez» aditzetik berezteko, sañi bitañ-tean maratxo bat ipiñi eban: beste batzuetan ezer bez: *ba-duk*, *ba-naz*, *deus ez bat bai-liz bezela*: *ez-da*, *ez nintzan gaur* (Of. I, 132) *ez-pa-lu*, *ez-genike* f. a. Euki doguzan idazlerik onenak «bai ta ez» aditz-añizki etsi dabezanik ez dirudi.

5. Eñiak «ez eta bai» aditzari irasten dautsazala ondo daki Euskaltzain - buruak ¿Zelan ete - daki? «Aotsen alkañ jotetik aldakuntzazko ostagiak soñtzen direalako».—Ondo dago: baña *notaki*, *notiño* ta beste oñelakoez gañera, «*nor tzan*, *il tzan*, *egon tzan*» eta beste onelako askotan be, aldakuntzazko *ostagi* oñeik (fenómenos fonéticos de permutación) euskal-eñiak sortu-arazi ditu. Itz bi oñeik, bat bai'liran eñiak oguzten dituala dakigun baño ziuñago ba'genki be ¿alkañi josita idatziko ete-geunkez? Eñiaren oguzkeran aldakuntzazko *ostagia* dakusgula-ta beste barik, lenengo itza bigañenaren añizki dala esaten ¿nor ausañtu daiteke?

Azkue'k aitatzen dauskun aldakuntza-*ostagi* ori añizkiak egiteko beste ba'litz, berak añizkitzat ez daukazan itz asko be emendik auñera aintzakotzat aritu ta erabili beañ izango leukez. Aldakuntza-*ostagi* onek lañegi darakus, eta-lañegi darakusalako, añizkia zein dan oñ ezin ezagutu geinke.

Eñiak edonon eta beti, sañien darabiltzan itzetan aldakuntzarik andienak sañtu ditu. «Oñez goaz, itxa-soz daroagu, eznez beterik» esaten dira; baña oñelako edozein baño aditz irabiatu-auñean «ez» askozaz be

sariago doa, gorputzez mengelago da, bere iku'pe-nak be aditzari uragotik ikutzen dautso; augaitik, besteok so'rtu ez dabezan aldakuntzak egiteko, au'rizki (prefijo) izan bea'rik ez dau euki.

6. Bayetza adierazo nai dogunean, aditz irabiatu-au'fean be «bai» idatzi bea'r geunkela ni'ñoan nik: Azkue'k, naiz bayetza naiz baldintza adierazo nai dogula, bietan bardin, bietan «ba» idatzi bea'r dala di'ño, euskaldunik geyenak «i» barik di'ñoen bayetz-itx ori aditz-au'rizkia dala-ta. «Mai, zai» ta beste onein antzeko itxai, aditz irabiatu-au'fean joan a'ren, euske-rearen jabe dan e'riak euren «i» ori ez dautse kendu; «bai» ri, ostera, au'fez, tokirik geyenetan. ¿Zegaitik? «Itx gitxitan-di'ño- bai au'rizki dogulako, besteok ba'riz au'ritz bai ta au'rizki ez». — «Ez» au'rizki da—esan dau lentxuago. Zegaitik? «Aldakuntzazko *ostagiak* sortzen dituelako»: «bai» be au'rizki da, di'ño orain; ba'ña ez aldakuntzazko *ostagi* o'reik sortu daroazalako, aditz-au'fean bere azken izkia (letra) galtzen daualako ba'ño. Batean augaitik, bestean origaitik eta beti, geure aburuari eutsiteko ondo dato'renagaitik: bide au a'rtu ezkerro, zenbatnai au'rizki eskuratu geinkez. Itzen alka'r jotean, au'retik doanak izki (letra) bat gal-tzea, au'rizki izateko ori naiko ba'litz, izkin (silaba) osoa galtzen daben itzak, au'rizki ta erdi gitxienez litzatez eta onelan, «*ikustot*»'en asi-ta, Azkue'k aita-tzen daustan Finis terræ'ra eldu ba'ño len, au'rizki-a'rantzu izuga'ria egingo geunke.

7. «Bai ta ez» soil-so'ilik sa'ri darabilguzan ezke-ro, euren buruen jabe, euren eskuko direala i'ñok ezin ukatu daike.

Ba'ña «ni, gu ta zu» be-di'ño Azkue jaunak-euren eskuko dira eta ori ta guzti be, aditzari eza'ten dau-tsaguzanean, mu'riztuak darabilguz: *nago*, *gagoz*,

*zagoz* esan eta idazten dira, ez «*niago, guagoz, zuagoz*».—Bai; baña «*nago, gagoz, zagoz*» oneik «*niago, guagoz, zuagoz*»-en laburpenak ete-dira? Aditzera oñeik atondu ta egiteko izen-ordekoetan daukagun lenengo igidiña erabili zala argiro dakusgu; baña igidin ori bakañik ala izen-ordea osorik oñetarako arñu zan... ¡batek bayakit! «*Ni, gu ta zu*» gaz egindako aditz-erak baño «*na, ga ta za*» gaz egindakoak obeto dirudie. Dana dala, aditz-era oñeik «*ni, gu ta zu*» gaz atonduak ba'lira be, *ni nago, zu zagoz* t. a. esaten doguz-ta, aditzean euren ikuñpeña aldatu ta beste iñarkun bat arñu dabe: augaitik, «batean *ni*, bestean *nago*; batean *gu*, bestean *gagoz*» idatzi añen, itz berbera ikuñpen bardiñaz era bitara idazten dogunik iñok ezin esan daike. Ostera, batean «*badator*», bestean «*bai, etori da*»: batean «*badar*», bestean; «*¡ori bai dala gizonaren zentzunal*» idatzi ezkeru, *itz berbera ikuñpen bardiñaz era bitara idatziko geunke*.

8. «*Eztabaida*» darabilgun *euskaldunak* «*eztabada*» darabilenak baño geyago gareala: «*bai*» ori gure bayetzari indar geyago emoteko erabilten dogula: Lekeitio aldean aditz irabiatuaren aũrean be «*bai*» ori osorik entzuten dala Azkue'k autoñtzen dau. Aitañzen dituan «*baizin* eta *baiz*» umeak erabilten dabez, «*ezin* eta *ez*» diñoanari bere antzera erantzuteañen eta auzi onetan aintzat artzekoak ez dira. Lekeitio aldean be «*bakigu ori emakumia, bakigu*»: *bakixu?* ta olañoak erabilten direala...? Bai; baña «*ba-dakigu*»'ren ordeñ «*bakigu*», *ba-dakixu*'ren ordeñ «*bakixu*», *ba-dakañ*'en ordeñ *bakañ*... idazten asi ba-gaitez, «*baiz eta baizin*» oñein Babel'era joan beañik ez dogu izango, Babel andiangoan sarñtuko gara ta. Eñiak diñoñan leñ idazten ezpa-doguz, ostera, *euskerearen jabe dan eñiari* ez dautsagu jañaitzen eta aditz irabiatu-aũrean,

erriari atsekaberik ez emoteaŕen, «bai» idazteko bildur gareanok jona emen erriaren aurka!

9. «*Bada*»ren ordez «bai-da» baño askozaz be toki geiagotan esaten dau erriak «*gosia, gosea*»ren ordez, «*eskue eskua*»ren ordez eta, au gora-bera -diño Azkue jaunak—batasunera eltzeaŕen guztiok aintzat arŕu doguz: «*gosea, eskua*».—Gosea, besoa, eskua ta onein idekoak baño «*gosia, besua, eskuba* naiz *eskue*» euskaleŕian zabalago dabiltz: baña itz bakoitza era bitara idazteak nastea baño besterik ez dakaŕela-ta, «*gosia, besua, eskue*» diñoen euskaldunai jaramon barik, itz oŕeik eta euren antzeko beste enparau guztiak, osorik eta aldatzeka idatzi beaŕ ei-doguz.—Ondo dago: baña batean *gose*, bestean *gosia*; batean beso, bestean besua t. a. idaztea gauza zuzena izan ezik, orain «*bai*», gero «*ba*»; emen «*ez*», bestean «*e*» idaztea ¿aburu zuzena zelan izan daiteke? Jakin ete-lei?

10. Neure lenengo txostenean birŕitan gitxienez niñoan; lentxuago be esan dot; baña auzi au bere sennetik atera ta nire burkide kementsuari bildur-ikarea saŕtu dautsan *Finis Linguæ*'ra iñok eroan ez dagiantzat, orain baŕiro diñot: Aditz-irabiatu-auréan dantzugun «*bai*» (*ba*) ta jarein dabilan beste «*bai*» ori, nire eretziz itz berbera ta ikuŕpen bardiñaz darabilgun itza da». **Itz bakaŕa, ta ikuŕpen bardiñaz darabilgun itza, ¿zer dala-ta idatzi beaŕ dogu batean batera, bestean bestera?** (4<sup>o</sup>). Azkue jaunak, lenengo «*barausteko*», gero «*amabi, amairu, ogetabi, ogetiru*» t. a. aitatzen daustaz, aleman ta guzti. Aitatze oneik, nire aburuz, arira ez datoŕz. «*Barau* ta *barausteko*'k ikuŕpen bardiña ba'leukê: *amar* eta *amairu, ogei* ta *ogetabi*'k gauza bat adierazten ba'leuskue ta itz berbera ba'lira: «*banaz ibili ta ibili naz bai*» diñogu-

nean, lenengo «ba» arek eta bigarren «bai» onek gauza bat adierazten daben lez, orduan bai, arira letořkez; baña «*barau* ta *barausteko*, *ogei* ta *ogetabi*, *ikuřpen berezidun ikuř bereziak*» dira-ta, auzi onetatik landa dabiltz.

Alemanak izkuntza-gayetan be, jakitun-ospe andia dauke; baña «*barau* ta *barausteko*» gauza bat dirala; «*amař*, *amairu*» beste dala erakutsi ta on egingo dauskun alemanik ez dago: augaitik, itz ořeik eta euren ideko beste enparau guztiak aldatuxe idatzi ařen, *itz berbera ikuřpen bardiñaz era bitara idazten dogunik iñok ezin esan daike*.

11. Eriak zabal darabiltzan eta guk zuzenetsi ezin geinkezan «notiño, notaki» f. a. egin ditu; baña «nok diño, nok daki» ta onein idekoak oguz-gaitzak dire-alako egin ei-dau eriak naste ori. «Bai-daki, bai-dator» eta onako besteak oguzteko eřezagoak ei-dira, ta eriak «*bai*»ri bere «*i*» ori kendu ba-dautso, beste zioen bategaitik izan ei-da: aurizkia dalako, noski.— Oguzteko eřezagoak ala gaitzagoak diran ez-dakit: ez aetan, ez oneitan nik gaiztasun andirik ez dakust; baña oguzteko gaitzak diran itzetan baño bere ezpantetan sarrien darabiltzanetan eriak aldakuntza ta laburpen geiago egin dituala edonok daki. Aditz-irabiatu-aurean be eriak «bai» ori sari baño sariago erabili beari izan dau ta bere «*i*» kendu ta «ba» egiteko «i» ori auzoko txara izan bearik ez egoan: itxitasun pizka bat naiz labur-zaletxu izatea ořetarako naiko ta larzan. Ziñez, «bai-dauko» tik «ba-dauko»-ra etori zan eri labur-zaleak, «*baauko*, *bauko* ta *beuko*» be laster egin ebazan.

12. Bizkai ta gipuzkoerak ez dauken eta beste euskalkiak eřderazko «*pues*» adierazteko darabilen aurizkia «*bait*» dala autořtzen dau. Azkue jaunak.

Oñtik euskalkien arteko naste txarén bat sortuko etezan bilduréz ebiltzanai bildur ori kendu dautsela dirudi; baña aditz - irabiatu - aurrean «bai» osorik idatzi ezkerro, bizkayeran zalantza-bidea ipiñiko geunkela diñost, bizkayeraz beste eukalkiok ez dauken eta «bai» oregaz egiten dogun aditz-era bat darabilgu-ta: «bai' letořen», *como si él viniera*: «bai'litzan», *como si fuera él*.—Lenengo ta bein, idazle zâretan aditz-era au *legez, legetxe*, edo *bezela*» harik bein be ez dot idoro: Lapuñá bailitzan legetxe (Añib. Esk. Lib. 217): esan izan bailituzan legez (218). Eta galdu zuk au guzia deus-ez bat bai-liz bezela (Mend. Otoitz I, 134) Bañutia'ren: «lasta-sakua bainintzan *ala*», orelako zerbait dala dirudi. Bigarén, Bizkai'ko eri gitxi batzuetan aditz-era au «*legez, legetxe*» gañeratu barik be erabilten dabe euskaldun batzuk; baña irugarén notiñaz baño ez dautset iñoz entzun eta irugarén notiñaz naste-biderik ezin daiteke. Beste notiñekin erabili nai ba'gendu be, naste andirik ez letořkela dirudi «*Egin ez daigun*», para que no lo hagamos; «*ez daigun egin*», no lo hagamos, direan lez, *etofi bai'nintzan*», como si hubiese venido yo, «*bai nintzan etofi*». sí vine, izango litzatez. Nozbait nastea ba'lekar be, naste ori kentzeko *ikuř bari bearik ez daukagu*. Aditz-era au baldintz-era berbera da, «*n*» atzizkia gañeratuta beste barik: baldintz-era ořetan, «*ba*» aditzetik berezteko, idazlerik geyenok aspaldion darabilgun eta erabili bear dala dirudian ikuřa bera, era onentzat be naiko litzate ta egoki letořke.

13. «*Bai*'ren ordez *ba* idatzi ezkerro, zalantzadun idazkerak legokez eta esakunaren amaira eldu arte beintzat, zelan irakuři be ezin jakin geinke.» Neure aurreko txostenean ori esan eta erakutsi neban. Euskaltzain-buruak ori autořtzen daust; baña *berarizko*



*ikuř baten* bidez okeř ori zuzendu leikela-ta, «bai» ařtzera ez dago. Ikuřa ipiņi ezkeru, baldintza dikuřan «ba» ta bayetza adierazten dauana, ezautu ta berezi daikeguz: baņa *badator*’en «ba» ori «bai»’ren ordez dagoala adierazteko, areri «i» gaņeratzea baņo ĳikuř oberik ete-dago? ĳEz alda ori ikuřik onena, naiz idazteko naiz irakuřteko beste edozein beizen eřeza ta, beař ba-da, eřezagoa? *Ikuřen bat erabili beařean gagozala autořizen dogun ezkeru*, orain ařte iņok erabili ez dauan ikuřa asmau ta erabili baņo, eřian bizi dana, eřiak berak darabiļana ařtu ta erabili ĳobe ez ete-da? Eřizale ei-gara! Eřiak berak nonbait darabiļan ikuřa ařtu dagiana, ori itxi ta beste bat asmau dagiana baņo eři-zaleago dala deritxot.

14. Gu ezkara osozale—diņo Azkue jaunak—eřizale gara gu. Eřiarenak gara, eřiarena da gure izkerea. Euskarearen jabe dan eřiak aditz-irabiatu-auřean, bayetza adierazteko be, «ba»-beste «bai»-ori baņo askozaz zabalago darabil—Ni be edonoz eta edozetan ez naz osozale; baņa itz osoa ařtzeko berarizko zioa dakustanean, ĳzegaitik ez? Euskeraren jabe dan eři onek ba-daki, ba-darabil eta onelakoai luzegi-edo eretxita, *baaki, baki, babil, bator, bakař, bauko* eta beste onelako labuřpen asko egin ditu ta berein idazlek eřiaren labuřpen ořeik idatzi be egin dabez: *bauko, bago* (Arzad) *baazaut, baakus, baakit* (Aņibar): asiera *bauka* (Bart). Euskeraren jabe dan eřia auřerago be joan da: «ba» ori batzuetan bere «a» zearo kendu, beste batzuetan aldatu egin dautso: *beukan, bekian, beeban, beban*. Anbat idazlek, gitxiago ez izateařen, eřiaren labuřpen eta aldakuntza oneik diran lez idatzi dabez: «Entzun *beeban*, ikusi *beeban, beekian, beegoan, beeroyen* (Bartol): biotzik *ezpeukan* (Aņibařo): birmiļa ařain *bėbala; beeroen olař zařa*

*iltera*: egiten *beustak* (Zabala). «Eriak zerbañt era bitara darakuskunean—diño Azkue jaunak—ikusida gungun zein dan bere jokerrarik andiena».—Gure eriaren jokerrarik andiena zein dan agiri da: safi ezpanetan darabiltzan itzak moztu ta laburago egiteko jokerea darakus: lenengo «bai» moztu eban, gero «ba» be moztu ta aldatu egin dau eta aditzari be aur-izkiña kendu egin dautso bein baño safiago. «*Ba-daki, ba-dator, ba-dakar* t. a. baño *baki, bator, bakar* t. a. euskeldunen artean zabalago dabilz; eriaren jokerrarik andiena aintzat artu ezkeru, aek laga ta oneik erabili beañ doguz; baña oneik «bai» ezeze aditza bera be muriztuta dauke-ta, euskalizi edo gramatikara eroango ete-doguz?

15. Nire aureko txostenean gai bi batera nerabiltzan: lenena, «bai ta ez» osorik eta aldatzeka idatzi zuzenago da: bigarena, naiz aldatzeka naiz aldatuxe erabili, aditzari josi barik idaztea obe litzate. Osorik idatzi ezik, itz berbera ta ikuñpen bardiñaz darabilgun itza era bitara idatziko dogu: bayetza dikuñan «*ba*» ta baldintza adierazten dauana berezi al-izateko, berarizko ikuñen bat asmau ta erabili beañen gagoz. Bayetza ta ezetza dikuñen eta ikuñpen bardiñaz banezean edonoz darabilguzan itzok, aditz-aurizkiak direala ezez esaten da; baña esatetik ori on egitera bide luzea dago.

16. Azkue, nire aiskide ta euskalari bikañak, bere efiko «bai» laga ta oren ordez «ba» erabilteko, daukan ziorik andiena, auxe da: *Usus quem penes arbitrium est et jus et norma loquendi*. Au idatzi eban beñola Orazio ospetsuak; baña Kintiliano'k (au be ez zan mikearen azken umea) oñeri buruz esan eban: *Necessarium est iudicium. Usum et consuetudinem sermonis vocabo consensum eruditorum; sicut vivendi, consensum bonorum. Onetan be, zen-*

*tzun ona beaf da. Bizitzéaren eredu, onen bizikerea dan lez, izkuntzen neurí ta eredu be jakitunen erizkidetasuna, idazle onen idazkerea da. Gure antziñako idazleak euskera irakasteko asmoz bein bez; beste zerbait euskeraz irakasteko asmoz idatzi eben beti eta bakoitzak ofetarako ondoen eritxon eraz: augaitik-edo euren artean, eskuetan darabilgun gai onetzaz, erizkidetasunik ez da agiri. *Necessarium est iudicium!* ofetan nago. Adimena zofoztu, gaya sakondu, batera edo bestera idaztetik euskereari letofkiozan onera ta kalteak ondo oldoztu ta beretzat onuratsuen dirudian erea autetsi bedi; baña «nire uste ta guraria aintzat arfu ta bere azken-ondorenetara eroan ezkeró, *esateko, zofoztafi, bazkaldu, erabilten, zoragafi* t. a. darabilguzanez ezingo geunkezala erabili» ez begiket, afen, iñok esan, ori ames utsa baño ez litzake-ta. Idazkereaz batera euren ikuirpena be aldatzen daben itz ofei bakean itxirik, safi banezean darabilguzan «*bai, ez*» ta aditz-irabiatu-aurean bayetza ta ezetza dikuiren «*ba, e*» itz berberak ez dirala, ikuirpen bat eta bardina ez daukela on egin begigu, ta ori ezin ba'leu, itz berbera, ikuirpenez ezetan be aldatu barik, era bitara idaztea gauza zuzena dala irakutsi begi.*

EGUSKITZA

Lekeitio'n 20 - V - 1921.

---